

Giro ezin hobean ospatu ditugu aurtengo Andramari festak



Etorri bezala, konturatzerako eta ziztu bizian joan zaizkigu aurtengo Andramari festak ere. Oro har, herri-giro onean eta partehartze handiarekin burutu dira jaietako ia ekintza guztiak. Andramari bezperan hasi eta San Roke goizaldera arte, herritarrek nahiz kanpokoek izan dugu zertan gozatua aurtengo jaietan.

Urtero bezala, hilaren 13ko gibel-jatearekin berotu genituen jaietako motorrak. Azken urteotako jende gehiena bildu zen afari berezira. Andramari bezperan, umeak izan ziren protagonista egunean zehar: puzgarriak, roko-dromoa, antzerkiak, dantzak, bazkaria, buruhandiak, etab. izan zituzten. Eguneko nobedadea aurtun lehen aldiz egin den Goikoetxerako bizikleta igoera izan zen. Iluntzean, bertsolari gazteek pregoia egin ondoren, herrira gerturatutako dozenaka lagunek txekor ederra janez eta sagardoa edanez gozatu zuten. Andramari egunean,

meza, bolatea, herritarren arteko pilota txapelketako finala eta txakolin dastatzea izan genituen eguerdia bitartean. Arratsaldean, herri-kiroletan, Zeraingo taldeak Zegama-koari irabazi zion, eta helduen dantza txapelketan jende asko elkartu zen. Iluntzetik aurrera berriz, aurtun berroberreskuratu den mozerro jaiak kolorea eta umorea ekarri zuen herrira. San Roke eguerdian meza nagusiaren ondoren agintarien dantza-soka eta gazta probaketa egin ziren. Arratsaldean pilota partidak izan ziren eta gauetan giro paregabean egin zen herri afaria. Azken gauari ginda jartzeko, asto karrera egin zen.

Umore onean eta giro bikainean joan dira aurtengo Andramari jaiak. Hiru egun bete-beteren ondoren, hurrengo urtera arte adio esan diegu festei. Baina oroitza-penerako bizipen eta irudi asko geratzen dira. Horietako batzuk jaso ditugu festetako XAGUARTEA berezian.

XVII. azoka ekologikoa irailaren 18an

Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren azokak XVII. edizioa izango du aurten. Urtero, hutsik egin gabe, zeraindarron auzolanari esker, eta Biolurrekin elkarlanean, azoka bikaina izaten dugu herrian udazkenaren atarian.

Aurtengoa irailaren 18an, igandean, izango da. Goizeko 9etatik eguerdia bitartean produktu ekologikoen salmenta-postuak, tailerrak, erakusketak, artisauak, etab. izango ditugu. Barazkiak, fruta, ogia, gazta, sagardoa, ardoa, olioak, txerrikiak, gozoak, germinatuak, kosmetika naturala eta tinte naturalak erosi ahalko dira salmenta-postuetan. Tailerrei dagokienez, gozogintzakoa, garaian garaiko produktuak kontsumitzen ikastekoa eta senda belarrena eskainiko dira aurten. Horiez gain, urteroko gisara, sagar muztioa egiteko toleara, artisauak eta libixagileak ere izango dira. Eta aurten nobedade moduan, behorren ilearekin sokak nola egiten diren ikusteko aukera ere egongo da.



Arratsaldean, herri kirolak izango dira: inguruko aizkolarien saioa eta askoz gehiago. Eta egun guztian zehar, festa giroan laguntzeko, Xapre trikitilaria ibiliko da.

Azokaz gain, iaz bezala *Goierriko Baratzarekin* elkarlanean, "*Goierriko bizitza eta nekazaritza ekologikoaren IV. hamabostaldia*" antolatuta da udazken atarian. Zerainen bi hitzaldi izan-

go dira: irailaren 22an, Amaia Agirrek "*Baratza ekologikoa terraza eta balkoietan*" hitzaldia emango du, eta irailaren 29an, Maialen Sarasolak "*Sendabelarrak eta jateko diren belarrak*" hitzaldia emango du. Biak iluntzeko 7etan izango dira Zeraingo kultur etxean. Bestalde, urrian sukaldaritza makrobiotikoari buruzko ikastaroa ere emango da.

Peregrinazioa irailaren 3an



Arantzazuko peregrinazioa irailaren 3an, izango da aurten. Irteera goizeko 8etan egingo da Zeraingo plazatik. Bi aukera egongo dira: Batetik, hala nahi dutenek Zeraindik bertatik Urbiara joateko aukera izango dute. Bestetik, autobus txiki bat egongo da Aldaolaraino joateko eta gero handik Urbiarako bidea hartzeko. Eguerdiko 13:30etan Urbiko Fondan izango da bazkaria. Arratsaldeko 4etan, Mutiloko eta Segurako erromesekin

batara Arantzazurako jaitsiera hasiko da. 6ak aldera, harrera-elizkizun laburra egingo dute Arantzazuko fraileek. Ondoren, autobusa egongo da herrira itzultzeko.

Peregrinazioan joateko asmoa dutenek irailaren 1a baino lehen izena eman behar diote Xanti Muñoari. Bestalde, irailaren 4an, igandea, autobusez Arantzazuko mezetara joan nahi dutenek Segurako Germanenen hartu behar dituzte txartelak.

Herri-bilera egingo da irailaren 10ean, goizeko 10:30etan

Legealdi berriko lehen herri-bilera irailaren 10ean, larunbata, goizeko 10:30etan egingo da udaletxean. Udalak bereziki bi gai lantzeko deitu du herri-bilera hau.

Batetik, legealdi berrirako identifikatu dituen lan ildo nagusiak herritarrekin konpartitu nahi ditu. Arlo nagusi horietan lan egiteko, hala nahi duten herritarrek parte hartzea gonbidatu nahi ditu Udalak. Horretarako izango da bileraren lehen zatia. Bestetik berriz, bileraren bigarren zatian, Errementariko proiektua zertan den eta aurrera begira zein pauso emango diren azalduko zaie zeraindarrei.

Beti bezala, Udalak herritar guztiak hilaren 10ean, larunbata, goizeko 10:30etan egingo den bileran parte hartzea gonbidatu nahi ditu.

Araakie, adabakie, adabakia

Araakie zer den esatea erraza da Elenarentzat. Honela dio berak: "arropetan zulo edo urraturen bat egindakoan, hura estaltzeko gainetik jartzen zaion oihal edo tela zatie". Antzeko zerbaite dio OEH hiztegiak: "remiendo, petacho"; beste adiera hau ere eranstenu ordea, hurrena: "andrajo, harapo". Forma asko ditu hitzak: *adabaki, adobaki, arabaki, aro(b)aki, adabakin, arabakin, adaberi, araki, erabaki* eta *adaberi*.

Ikusten denez, alde txikia dago forma batetik bestera. Hegoaldeko hitza omen da: Bizkai-Gipuzkoetako batez ere. Hona hiztegitik jasotako lau esaldi, remiendo edo petacho adieraz hitz hori darabiltenak: hasteko "ez dezu [...] Jesukristoren legia, ez bada [...] gerozko denboretan erantsi diyoten arabakiya", hurrena "Zeru lurren jabeak onela erabaki zuan, zezakena bezela, [...] eta ez dago oni arabakia zer jarririk", ondoren "Euskaraak ez dau zolia izateko adobakirik bear. "El euskara no necesita remedios para ser sonoro". Eta, azkenik, Txomin Agirrek honela dio Garoan: "[Praka] atze ta aurre arabakiz beteak". Aldiz, "andrajo, harapo" adierarekin bi esaldi hauek aukeratu ditugu: batetik "izpi ta salaritzat arturik, arabakiak astindu ta ondo begiratu zioten eta [...] kapitanagana eraman zuten"; bestetik, berriz, "An zijoan mutil gazte lerdena, baldea eskuan, arabakiz ta zarpallaz jantzia". Formari dagokionez, adibide horien arabera (eta Zerainen bezala) r-dun formak dira askogatik nagusi.

Honelako komentarioak erantsi dizkio Elenak gaurko hitzari, herrian batzuei eta besteei entzundakoak gogoan izanik: "Nor ez ote du erabili *araakidun* arroparen bat etxean? Edo kalean? Eta ohean? Garai batean besterik ez zelako eta gerora modan egon zelako. Jostun batzuek oso *araaki* onak egiten zekiten eta beste batzuk kolore desberdineko zerbaitekin ere *araaki* politak jartzen dituzte. Hobeto esanda, jartzen zituzten.



Lanerako buzo zahar batean jarritako adabakie.

Gaur egun, izan ere, petatxoak jartzen dituzte *araakien* ordez." Hor dago gakoa, kontua eta giltzarria: orain, Zeraingo gazteek eta ez hain gazteek, *adabakiari petatxo* esaten diote.

Baliteke hemen ere praktika sozial baten gainbeherak lehengo hitzaren galera indartu izana. Ez dirudi ordea kontua hori bakarrik denik. Lehen baino *adabaki* gutxiago jartzen da orain arropetan, egia da hori, *pret-a-porter* modak alferrikako bihurtu baititu *adabaki* asko eta, horrezaz gainera, *adabakiz* kalera ateratzea ez baitago lehen bezain sozialki onartua (justu adabakiaren erabilera alternatiboaren kasu berezietan izan ezik). Orain ere egiten dira ordea, hanhemen, *petatxoak*. Zergatik *petatxoak*

bai, eta *adabakiak* ez? Joera berrien iturburua kalegiro urbanoan dagoelako, *adabaki* hitza (eta, agian, *adabaki* zahar haren behar funtzionala) kalegiro horretan aspalditxo galdu zelako eta oraingo *petatxoak*, azal eta mami, erdal iturria duelako? Ez dakit galtze-berritze hori justu nola gertatu den. Hipotesia besterik ez da goiko hori. Hoberik duenak, hori bai, bota beza lasai. Atentzioz entzungo diogu.

Bitartean, prakak urratzen badituzue jarri lasai *adabakie, araakie* edo gehien gustatzen zaizuena. Baita *petatxo*a ere, beste aukerarik ez bada. Zuloa estaltzea da kontua.

Mikel Zalbide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

UZTAILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
					1	2	3
Euria (l/m)	GUZTIRA: 89 l.				0	0	1
C° altuena	ALTUENA: 35°				28	33	32
C° baxuena	BAXUENA: 8°				9	9	14
	4	5	6	7	8	9	10
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	0,5
C° altuena	30	33	27	25	33	30	20
C° baxuena	12	10	15	11	8	14	16
	11	12	13	14	15	16	17
Euria (l/m)	0	27	9	0	0	0	7,5
C° altuena	35	20	22	25	30	31	23
C° baxuena	15	15	13	12	11	13	13
	18	19	20	21	22	23	24
Euria (l/m)	0	15	1	4	0	0	7
C° altuena	27	27	26	22	22	22	20
C° baxuena	10	10	12	15	12	10	12
	25	26	27	28	29	30	31
Euria (l/m)	8	7	2	0	0	0	0
C° altuena	22	22	21	26	28	29	30
C° baxuena	16	16	14	15	13	12	11

Uztaila bustia eta freskoa izan da

Kostaldean baino lehorragoa izan bada ere, uztaila nahiko bustia izan da: 12 egunetan egin du euria eta gehien botatako egunean, hilaren 12an, ordu laurdenean 30 litro inguru egin zituen. Tenperaturei dagokierik, orokorrean nahiko freskoak izan dira, bai altuenak eta bai baxuenak. Tomateentzat baino gorrinarentzat giro hobea izan badira ere, ale ederak ikusi dira; adibidez Mandiora iritsitako 1,650 kg.-ko tomate hau.



ZERAIN
Urtekaria
Urtekaria
eskuragai
2011

24. urtez jarraian, Oa kultur elkarteak egindako Zeraingo urtekaria kalean da. Mandio dendan, Mandio tabernan eta Ostatun eskura daiteke.

Uso-postu onak tokatu zaizkio Zeraini Partzoneriko zozketan

Herriko ehiztariak gustura daude. Zeraini honako uso-postuak egokitu zaizkio Partzonerian aurtengo denboraldirako: Apota 10, Aginarian 2, Larrebil 9, Iturgain 3 eta Letain 10. Diotenez postu onak dira. Ilusioa badago eta orain usoak etortzea falta!



Gas mozketa herrian

Abuztuaren 31n, asteazkena, gasa moztuko dute gaueko 10etan eta gasik gabe egongo dira herriko etxeak hurrengo eguneko, osteguneko, goizeko 8ak arte. Elkargasek jakinarazi duenez, mozketa sarearen estankotasuna neurtzeko frogak batzuk gauzatzeko egingo dute.